

## **AKTA**

### **Udalaren presako ezohiko Osoko Bilkura**

**ORGANOA:** Udalbatza

**DEIALDIA:** Lehenengoa

**EGUNA:** 2015-12-21 (12)

**ORDUA:** 08:00 – 08:30

**LEKUA:** Markina-Xemeingo Udaletxeko bilkura aretoan.

#### **BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Juan Jose Txurruka Txurruka (BILDU)

**Zinegotziak:** Josune Baskaran Etxeberria (EH BILDU)  
Aitor Odiaga Garate (EH BILDU)  
Iratxe Lasa Arana (EH BILDU)  
Isabel Mandiola Zuazo (EH BILDU)  
Andoni Malaxetxebarria Kaltzakorta (EAJ/PNV)  
Luis Mari Malaxetxebarria Elordi (EAJ/PNV)  
Ainara Gandiaga Longarte (EAJ/PNV)  
Alex Aretxabaleta Egia (EAJ/PNV)  
Sorkunde Maguregi Maguregi (EAJ/PNV)

Idazkari eta kontu-hartzailea: Iratxe Rementería Otxandio

Bertaratu ezina arrazoitu du: Joseba Iraolagoitia Martinez (EH BILDU)

#### **AZTERGAIK:**

- 1.- Markina-Xemeingo udal eraikinak garbitzeko zerbitzuaren adjudikazioa.
- 2.- Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Markina-Xemeingo Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena (besteren laguntza behar duten adinekoei egoitza zerbitzu publikoa emateko) onartzea.

**1.- MARKINA-XEMEINGO UDAL ERAIKINAK GARBITZEKO ZERBITZUAREN ADJUDIKAZIOA.**

2605 – 2015/155 KODEA

2015eko urriaren 22an, Udalaren ohiko Osoko Bilkurak Markina-Xemeingo udal eraikinak garbitzeko zerbitzua prozedura irekiaren bidez kontratatzeko lizitazioa egitea erabaki zuen, eta kontratazioaren adjudikazioa arautuko zuten administrazio klausula berezien agiria eta preskripzio teknikoena onartzea.

Azaroaren 14ko 3/2011 Errege Lege-Dekretuz onartutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategineko 142. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, lizitaziorako deialdia argitaratu zen 2015eko azaroaren 23ko BAOn (225. zenbakian), eta hamabost laneguneko epea zabaldu zen, lizitazioaren gaineko iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako egunetik aurrera zenbatzen hasita, eskaintzak aurkezteko.

Eskaintza bi aurkeztu ziren, URBASA S.L. eta EULEN enpresenak.

2015eko abenduaren 17an Kontratazio Mahaia bildu zen, berorrek eskatuta udal teknikariek 2015eko abenduaren 15ean irekitako “B” gutunazal (lizitatzailleek proposatutako proiektu teknikoa eta hobekuntzak) barruko balorazioa garatzen egindako txostena onartu eta “C” gutunazala, zuzenean formula bidez balioetsi daitezkeen eskaintza ekonomikoena, zabaltzeko. Lizitaziora aurkeztutako enpresa biek saio honetan eta aurrekoan lortutako puntuak batuta (biak ala biak teknikarien txostenean jasota eta espedientean sartuta), hauxe izan zen emaitza:

EULEN: 95 puntu  
URBASA S.L.: 77,96 puntu

Hori horrela, Kontratazio Mahaiak Markina-Xemeingo udal eraikin eta zentroak garbitzeko zerbitzuaren kontratua EULEN enpresari ematea proposatu du.

Espedientea aztertu eta gero, Udalbatzak hauxe erabaki du aho batez:

1) Markina-Xemeingo udal eraikinak eta zentroak garbitzeko zerbitzuaren kontratua EULEN enpresari adjudikatzea, berorrek eskainitako prezioan: 398.213,84 euro, BEZ barne.

2) Esleipenari buruzko iragarkia argitaratzea, bai kontratatzailearen profilean eta baita Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ere

3) Kontratua hamabost laneguneko epean egingo da, esleipendunak erabaki honen jakinarazpena jasotakoan zenbatzen hasita. Kontratuari baldintzen pleguaren kopia erantsiko zaio, alde biek sinatuta, honek ere kontratu balioa izan dezan. Halaber, kontratu balioa izango dute esleipendunak aurkeztu eta Kontratazio Mahaia balioetsitako hobekuntza eta proposamenak ere.

4) Ekonomia arloari erabaki honen berri ematea.

5) Erabakia, enpresa esleipendunari eta lizitaziora aurkeztutako beste enpresari ere jakinaraztea: EULENi eta URBASA S.L.ri, hurrenez hurren.

**2.- BFA ETA MARKINA-XEMEINGO UDALAREN ARTEKO 2016RAKO LANKIDETZA-HITZARMENA, BESTEREN LAGUNTZA BEHAR DUTEN ADINEKOEI EGOITZA ZERBITZU PUBLIKOA (SAN ROKE) EMATEKOA, ONARTZEA.**

6019 – 2015/ 82 KODEA

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak hitzarmen zirriborro bat bidali du, besteren laguntza behar duten adinekoei egoitza zerbitzu publikoa (San Roke) emateko Markina-Xemeingo Udalarekin izenpetu beharreko hitzarmenaren zirriborroa.

Hitzarmenaren zirriborroa Udalbatzaren iritzira jarri da, eta honek, azaldutakoak aztertu eta gero, hauxe erabaki du aho batez:

- 1) Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak San Roke egoitzarako hitzarmenari buruz 2016rako proposatutako aldaketa onartzea 2016ko urtarrilaren 1eko eraginez.
- 2) Ekonomia arloari erabakiaren berri ematea
- 3) Erabakia lehenbailehen Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari jakinaraztea.

ETA BESTERIK EZ AZTERTZEKO, ALKATEAK AMAITUTZAT EMAN DU BATZARRA, 08:15ETAN, ETA UDALEKO IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILE NAIZEN HONEK HAN ESAN ETA ERABAKITAKO GUZTIAREN FEDE EMAN DUT.

ALKATE-UDALBURUA,  
Juan Jose Txurruka Txurruka

IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILEA,  
Iratxe Rementeria Otxandio

